



Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

ZIURTAGIRIA

Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIA

NEUK ZIURTATUA:

Udal Plenoak, 2022ko apirilaren 12an egindako bilkuran, bestek beste, honako akordioa hartu zuen:

“2022KO ARAUDI PLANA ALDATZEA (2021SSEC0029).

Udal Plenoak, aldeko 12 boturekin (EAJ-PNV eta PSE-EE), aurkako botu 1ekin (PODEMOS ARRASATE) eta 8 abstentziorekin (EH BILDU), Barne Antolaketaren Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean 39/2015 Legea. Honen 132. artikulua honakoa dio:

“132. artikulua. Arau-plangintza.

1. Herri-administrazioek, urtero, araugintza-plan bat argitaratuko dute. Bertan, hurrengo urtean onesteko aurkeztuko diren lege- edo erregelamendu-ekimenak jasoko dira.

2. Urteko Araugintza Plana onartu ondoren, dagokion Administrazio Publikoaren Gardentasunaren Atarian argitaratuko da.”

Artikulu horretatik ondorioztatzen da:

- Nahitaezkoa dela, nahiz eta ez diren arautzen hura ez egiteak edo ez argitaratzeak izan ditzakeen ondorioak.
- Administrazio publiko guztiak behartzen ditu, hau da, lege horren 2.3 artikulua araberak, Estatuko Administrazio Orokorra, Autonomia-erkidegoen administrazioak, Toki-administrazioa osatzen duten entitateak, bai eta horiei lotutako organismo publikoak eta zuzenbide publikoko erakundeak ere.
- Planak Administrazioaren arau-neurri guztiak jaso behar ditu: aurreikusitako ekimenak jasoko dira, baina horrek ez du esan nahi horiek guztiak onartuko direnik, ezta Plana aldatu ere.

Kodea	H22/03775	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/api./13	CUDO	000.0055.AAAANYFK.Q.yMd2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANYFKQ.yMd2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitez edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

ezin denik ere arau berriak sartzeko edo aldatzeko beharrezkoa den guztietan. Ez da tresna zurruna, baizik eta administrazioaren asmoak eta beharrak herritarrei "aurreratzea".

- Arauak onartzen diren urtearen aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen egin eta onartu behar da.

Udal Plenoak, 2022ko otsailaren 1ean egindako bilkuran, besteak beste, 2022ko Araudi Plana onartu zuen.

Oraingoan, jarraian zehazten diren ordenantza proposamenak egin dituzte 2021eko Araudi Planean sar daitezen:

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun arloari dagokionez, ikusi da komenigarria dela jarraian aipatutako ordenantza aldatzea:

* 1GO ALDAKETA ARRASATEKO 1/2021 UDAL ORDENANTZARENA, APARKATZE ETA IGAROTZE MUGATUKO SISTEMA ARAUTZEN DUENA (TAO SISTEMA).

Udal Plenoak 2021eko martxoaren 2an egindako bilkuran erabaki zuen behin betiko onartzea Arrasateko 1/2021 Udal Ordenantza, aparkatze eta igarotze mugatuko sistema arautzen duena (TAO sistema)".

2021eko apirilaren 21ean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 71 zenbakian, aparkatzeko eta igarotzeko sistema arautzen duen Arrasateko 1/2021 udal-ordenantzaren (TAO sistema) behin betiko onarpena argitaratu zen.

2021eko urriaren 18ko N21/01039 alkatetza ebazpenaren bidez, erabaki zen Arrasateko 1/2021 Udal Ordenantza hori 2021eko abenduaren 4an indarrean sartzea.

Ordenantza indarrean sartu zenean, epe batera aldaketak egin beharko zirela aurreikusi zen; izan ere, beharrezkoa ikusi ostean, aldaketa puntualak egotea ohiko kontua izaten da. Honakoa egin ostean, gero eta gehiago etorriko dira, sistema hau ezarrita dagoen hiri eta herrietan gertatzen den antzera. Honela ba, aipatutako aldaketa hori ahalik eta eraginkorra izan zedin, informazioa biltzeko bide desberdinak abiarazi zituen Udalak, bai eskuragarri dituen zerbitzu desberdinen bidez -TAO BULEGOA, kexa biltzeko sistema, BAZ...-, bai komunikabide desberdinek argitaratutako informazioa baliatuz. Bestalde, auzo-alkate eta enpresekin harremanak izan ditu.

Aurrekoa dela, Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasuneko batzordearen mahaian planteatu da TAO Sistema arautzen duen Ordenantzan aldaketak egitea, jarraian azaltzen diren irizpideen arabera:

1.- ORDENANTZAN IDATZITAKO ALDATU:

- Mugikortasun urriko aparkalekuak doakoak jarri.
- Arrasateko gremioentzat txartel berri bat sortu, beren jarduera erraztuko duena.

Kodea	H22/03775	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/api./13	CUDO	000.0055.AAAANYFK.Q.yMd2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANYFKQ.yMd2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

- Etxebizitzetan, hirugarren txartel bat eskatzea ahalbidetu.
- Txandaketa Lasaia – TAO Merke (Gorria): 2 ordura igo.
- Egonaldi Mugatua – TAO Arrunt (Urdina): 4 ordura igo eta doako tartea 2 ordura igo.
- Egonaldi Luzea – TAO Luze (Berdea): Tarifazioa merketu (1 € txandako).

2.- BARRUTIEN MUGAKETA ALDATU:

- Zerrajera kalearen mendebaldeko zatia 0.2 barrutian sartu.
- Bizkaia Etorbidea 11 etxea 0.3 barrutian sartu.
- Jose Luis Iñarra-Altamirazpi izeneko 0.4 barruti berria sortu.
- Uriburu kaleko hasierako alde osoa 1.1 barrutian sartu.
- Foruen plaza 6 ataria 1.1 barrutian sartu.
- Kontzeziño 12-18 atariak 2.1 barrutian sartu.
- San Josepe kalea 1-3-7 zenbakietako etxeak 2.1 barrutian sartu.

3.- APARKATZEKO ZENBAIT GUNE ALDATU:

- Txandaketa Ugaria -TAO Express (Txuri urdina): ia erabat murriztu (besteak beste, kendu Mondragones, Otalora, Nafarroa...)

- Gune Berde eta Urdin gehiago sortu:

- Gudarien Plazan.
- Arrasate Pasealekuan.
- Bizkaia Etorbidean.
- Otalora Lizentziatua kalean.
- Aprendices eta Txaeta kaleetan.

Aurrekoez gain, Olarte (goiko aldea) eta Gazteluondo kaleen ordutegia egokitzea ere planteatu da.

Aldaketa horiek Ordenantzaren 1go aldaketa izapidetzea dakarte, eta, alde batetik, eragina dute 18, 19, 20, 25, 33, 35, 36, 37 eta 39 Bis artikuluetan (azken hori sortutako berria dena), eta, bestetik, Ordenantzaren honako eranskinetan: - I Eranskina-Esparru banaketa; - II Eranskina-Antolamendua; eta III Eranskina-Eremu murriztuak.

Hori horrela, Barne Antolaketaren batzordeak, EAJ-PNV eta PSE-EEren ordezkarien aldeko botoekin eta EH Bilduren ordezkariaren abstentzioarekin, Osoko Bilkurari proposatzen dio:

Lehenengoa: 2022ko Araudi Plana aldatzea aurrez aipatutako testua sartuz.

Bigarrena: Aipatutako aldaketa udal web orrian erakusgai jartzea.”

Kodea	H22/03775	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/api./13	CUDO	000.0055.AAAANYFK.Q.yMd2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANYFKQ.yMd2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			





Esp.kodea: 2021SSEC0029

Gaia: ARAUDI PLANA 2022
Hasiera eguna: 2021/11/17

Eta honela jasota gera dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, ziurtagiri hau luzatu eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2022ko apirilaren 13an.

O.E.

Alkatea

Kodea	H22/03775	Udala	ARRASATE/MONDRAGON
Data	2022/api./13	CUDO	000.0055.AAAANYFK.Q.yMd2
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAANYFKQ.yMd2		
Dokumentu honen baliotasuna egiaztatzeko hurrengo Web-an sarbideratu zaitetz edo QR irudia irakurri ezazu			

